

18E/2026 EBAZPENA , apirilaren 14koa, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, "Euskara helduei irakasteko laguntzak: 2025-2026" deialdiko bigarren ordainketa ebazten duena.

ERREFERENTZIA: **Espedientearen kodea: 0011-0617-2025-000000**

UNITATE KUDEATZAILEA: Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua
Euskararen Sustapen eta Plangintzaren Zerbitzua
Euskara Sustatzeko Atala
Tfnoa.: 848 423224
Helbidea: Paulino Caballero, 13. 31002 Iruña
Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

ESPEDIENTEA

Espediente mota: Euskara helduei irakasteko laguntzak: 2025-2026

Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuak maiatzaren 7ko 52E/2025 Foru Aginduan onetsita eta abenduaren 10eko 91E/2025 Ebazpenaren bitartez esleitutako deialdia dela eta aurkeztutako ordainketa proposamena ikusirik, aurkeztutako txostenak justifikazio-dokumentuen baliagarritasuna eta horien gainean egindako balorazioa jasotzen du.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak eta Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Onuradun bakoitzari beheko taulan ageri diren zenbatekoak ordaintzea, laguntzaren lehen zatian:

Num Exp	NIF	Nombre	Partida Presupuestaria	Importe
0011-0617-2025-000002	G31240005	ASOCIACION CULTURAL BORTZRIETAKO EUSKALTEGIA	G/B30002/B3200/481 9/334104	10.445,40 €
0011-0617-2025-000003	F95222816	EUSKARAZ KOOP E	G/B30002/B3200/481 9/334104	623.716,56 €
0011-0617-2025-000004	G31238199	ATARRABIAKO GAUESKOLA KULTUR ELKARTEA	G/B30002/B3200/481 9/334104	6.296,12 €
0011-0617-2025-000006	G31263072	ASOCIACION LEITZAKO EUSKALTEGIA	G/B30002/B3200/481 9/334104	11.272,97 €
0011-0617-2025-000005	G31246911	ASOCIACION CULTURAL DONEZTEBEKO EUSKALTEGIA	G/B30002/B3200/481 9/334104	4.330,86 €
0011-0617-2025-000007	G31941008	FUNDACION SAHATS	G/B30002/B3200/481 9/334104	47.139,82 €
0011-0617-2025-000009	G31762529	FUNDACION ARTURO KANPION	G/B30002/B3200/481 9/334104	66.203,54 €

2. Ebazpen hau jakinaraztea eskatzaile bakoitzari, eta igortzea Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarakoan duen Kontu-



hartzailtza Delegatuari, aipatutako departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta haren Kudeaketa Ekonomikoaren atalera, Euskarabideko Euskara Sustatzeko Atalera eta Gai Administratiboak, Langileria eta Azpiegiturak kudeatzeko atalera.

3. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtoa jar daiteke, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Iruñean, 2026ko apirilaren 14ean.

EUSKARABIDEA - EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA

Javier Arakama Urriaga

